

30. GAIA: EBALUAZIO NUTRIZIONALA

1.- DEFINIZIOA

Definizioa: *Osasun egoeraren ebaluaketa da, nutrizioaren ikuspuntutik*

Gauza ugari hartu behar dira kontutan:

- Egoera fisiologikoa
- Oreka bilatu: beharra/ahoratzea
- Faktore ugari (adina, sexua...)

2.- HELBURUAK

- 1.- Malnutrizio arriskuan dauden pazienteak antzeman
- 2.- Dieta desberdinen eraginkortasuna kontrolatu
- 3.- Osasuna eta elikadura sustatzen duten programak garatu

3.- EPIDEMIOLOGIA

Datuak esanguratsuak dira

SENPE-k Estatu mailan egindako ikerketa baten arabera (1597 paziente, 31 ospitale)

Espainia: Ospitaletako pazienteen %25ak malnutrizio arriskua izango du

Arriskua handituko da 65 urte gorakoentzat

Europa:

- Populazio orokorraren %5ak desnutrizio arriskua dauka
- 65-80 urte bitartekoak: %10-%20
- Guztira 20 milioi pertsona (120 milioi euro)

4.- EBALUAZIOAREN PAUSUAK

4.1.- Historia dietetiko

-Helburua: Mantenugaiaren ahoratzea ezagutu

-Metodo desberdinak daude:

- 24 orduko inkesta
- Kontsumo maiztasuna
- Egunkari dietetiko (3,5,7 egun)

4.2.- Neurri Antropometrikoak

- Pisu eta Altueraren bidez GMI-a lortzen da (Pisu(kg) / Altuera m²)
- Pisu aldaketak:

$$\Delta \text{ Pisu} = (\text{Ohizko pisua} - \text{Gaur egungo pisua} / \text{Ohizko pisua}) \times 100$$

- Pisu galerak:

>%5 Hilabetean edo >%10 sei hilabetetan:desnutrizio arriskua egon daiteke

- Perimetroak (besoa, GAI...)
- Azaleko pleguak (trizipitala...)
- Kalibreak (eskumuturra, ukondoa...)

4.3.- Historia Klinikoa eta Miaketa

Hurrego datuak jaso behar dira:

- Identitate datuak
- Aurrekari patologikoak
- Tratamendu farmakologikoa
- Anamnesia
- Miaketa fisikoa

4.4.- Proba biokimiko eta hematologikoak

- Odol, gernu eta gorozki laginak

- Metabolismo proteikoa:

- Albumina serikoa

- Transferrina

- Prealbumina

- Kreatinina

- Nitrogeno balantzea

- Gluzido metabolismo:

- Gluzemia mailak

- Gantzen metabolismo:

- Kolesterol (HDL, LDL...)

- Trigliceridoak

4.5.- Informazio psicosoziala

- Egoera psikikoa

- Bizi ohiturak

- Egoera ekonomikoa

Laburbilduz:

Ebaluaketa nutrizionalaren pausoak hurrengoak dira:

- 1.- Historia dietetikoak
- 2.- Neurri Antropometrikoak
- 3.- Historia klinikoa eta miaketa
- 4.- Proba biokimiko eta hematologikoak
- 5.- Informazio psikosoziala